

Nork b e r e HITZA

Bakarrizketak



50 KILO

Ez ditut 50 kilo pisatzen. Dezente gehiago. Eta? Axola al dio horrek? 36 tallako galtzak ez zaizkit balio. Eta? Zer gertatzen da? Korrika egin dezaket, jauzi, igeri, dantza... Eta nahi dudanean pastel bat jaten dut eta ez dizkiot buruari bueltak ematen.

A! Eta ligatzen dut, ez pentsa! Alai naiz eta zoriotsua neurri batean. Argalagoa izan nahiko ote nukuen? Agian... Baina baita burutsuagoa ere.

Begira, argi esango dizuet. Nik ondo moldatu nahi dut janariarekin. Mota guztietako jakiekin. Bale?

MAITALEA DAUKAT. ETA?

Bai, egia da. Duela urtebete galdetu izan bazenit, ezinezkoa zela erantzungo nizun. Baina badakizu, egoerak aldatu egiten dira eta bai, maitalea daukat. Arraroa egiten zait hitz hori nire ahotan.

Jon hain da berezia! Ez du Anttonekin zer ikusirik. Gizon bategan beti amestu ditudan dohainak ditu; entzun egiten du, ulertzen saiatzen da, goxoa da, atsegina, dibertigarria, eta bai, ohean ere aparta!

Ez jarri aurpegi hori. Zuk zenbat denbora daramazu Inakirekin? Urtebete? Zaude ba, bizitza honetan dena kadukatzen da eta. Baita maitasuna ere.

NERABEA

Munduko gurazorik zorrotzenak zarete! Anerenak ez dira horrelakoak! Askoz hobeto ulertzen dute dena. Konfiantza daukate alabarengan! Ba bai, hamarrak arte uzten diote egunero, 30 euroko paga jasotzen du eta jakina, mobila dauka.

Eta begira niri, hamar urte ditudala ematen du! Bederatzietarako etxera, 15 euroko paga ziztrina. Eta mobilik ez dudala behar 15 urte bete arte!

Ez dakit nola agoantatzen dudanez etxean! Lanean hasi eta lehenbailehen alde egingo dut. Diktadore hutsak zarete! Baina zuek zer? Ez zineten izan gazteak? Ez du ematen! Gazteak askatasuna behar du, bestela, aurkakoa lortuko duzue! Balé, bale, hor konpon! Ez dizuet kasutik egingo eta kito. Paso.

A! Lehen Amaiak deitu dit. Ostiralean Esne beltzak jotzen du. Oso talde ona da eta sarrerak dauzkagu. Garaiz etxeratuko naiz. Eta nahi baduzue, larunbatean aspiragailua-eta nire kontu, bale? Zer...? Joan naiteke? Mese...

GURASOA

Harro samar zabilta, entzun? Hamalau urte dituzu eta hemezortzi dituzula uste duzu. Aitak eta nik gogotik lan egiten dugu zuek denetik izan dezazuen. Eta etxe honetan zauden bitartean arau batzuk bete beharko dituzu.

Lehenengo, ikasketak eta familia. Eta gero..., gainontzekoa. Argi dago?

Bizimodu hau latza da gero, zer uste duzu? Eta diktadoreak garela? Hortxe daukazu ba atea. Kosta egingo zaizu ulertzen agian, baina onena nahi dugu zuretzat. Eta bai, zoritxarrez, onena ez da zuk nahi duzuna.

Eta jakina gu ere izan ginela gazte. Orduan zuk oraintxe pentsatzen duzuna pentsatuko genuen agian. Baina bizitzak buelta asko ematen ditu eta orain..., guraso gara; beste aldean gaude, ulertzen?

Hala ere, nahi nuke zuk beti gauza bat gogoan edukitzea: izugarri maite zaitugula. Eta kontzertura ez..., ez zara joango. Hamalau urte dituzu eta hango giroa ez da egokia zuretzat. Eta orain..., segi eskolako lanak egitera!

DENA NIRETZAT


Pozik bizi nintzen, Dena zen niretzat..., amaxoren musuak, aitaren kontuak... Aitona eta amona ere ondoan nituen beti: "tori goxokia. Eman pa. Goazen parkera!" Bost urte zoragarri.

Baina bar-batean aldatu egin zen dena. Amaren sabela handitzen hasi zen, lehertu egingo zela ematen zuen. Eta jende guztia ni zirikatzen; "Zer ondo, e? Anaiatxo bat izango duzu!"

Eta ezustean, anaiatxo bat ez; Mamu bat etxean! Ez da isiltzen, negar piloa egiten du eta gainera opariak ekartzen dizkiote. Lata bat! Txoratzen daude denak txorapito horrekin.

Denak, neu izan ezik, jakina. Txupetea kentzen diot, mingaina ateratzen, atximurrak egiten... Eta, Mikelek barre egiten dit gainera. Tontoa ematen du! Baina orduan nik ere egiten diot barre. Eta horrela ibiltzen gara...

Bale, bai... Hasi naiz ohitzen. Baina pixka bat handitzen denean kobratuko ditu, bai!



EZ DAKIT NOLA HASI NINTZEN

Ez dakit noiz erabaki nuen. Hemezortzi urte izango nituen. Ez nuen ikasi nahi. Eta gurasoek ez zekiten nirekin zer egin. Lagunak institutuan zebiltzan bitartean, ni ba, kalean ibiltzen nintzen.

Hasieran, bakarrik, baina berehala ezagutu nuen nire antzera zebilen jendea. Bikain pasatzen genuen ezer egin gabe. Baina egunak joan eta egunak etorri; egoteaz aspertzen ere hasi ginen. Eta dirua behar edozertarako.

Lan bila hasi nintzen, baina alferrik. Esperientzia eskatzen zidaten baita komunak garbitzeko ere. Lur jota ibili nintzen bolada batean, noraezean.

Eta egun batean, ba zera, aukera hori egokitu zitzaidan. Neska gaztea nintzela, gorputz polita neukala; Zer gatik ez? Diru asko ateratzen zen hilabete bakar batean. Eta bueno, gainontzekoa imajina dezakezue.

Bai. Gogorra da, batzuetan desatsegina, nazkagarria ere bai, ez dakit nola hasi nintzen.

SUPERMARI

Oraintxe esan dun! Neuk ere halaxe uste ninan, mundua jango nuela! Baina urteak bizkor pasatzen ditun..., eta konturatzerako, hortxe hago, bizitzaren erdian. Hotzikara eta ai ama!! Begi inguruko zimurrak gero eta nabarmenagoak. Dena erortzen hasten zain; ulertzen didan, aurrealdea eta..., atzealdea ere bai. Eta hortxe geratzen haiz, depreak jota.

Baina tira, egun pare bateko kontua izaten dun, aizan. Lehenengo izualdia pasatu eta erreakzioa etortzen dun segidan. Aurrerantz begiratu eta geratzen den tartea tope gozatuko dunala hitz ematen dion heure buruari. Lanean, nagusiari kasu justu-justu, eta pasatzen bada haizea hartzera bidali igual. Senarrari gauzak argi eta garbi uzten dizkion, berak ere pilak jartzeko derrepente! Eta munduari; erne egoteko, "supermari" martxan dagoela!

Zer? Zoratuta nagon, ezta? Marianito gehiegixto igual. Baina pizgarriren bat ere beharko dinagu ba! Tira, Begoñi, animo eta bihar arte!

BARKATU, AITA

Badakit, bai, askotan hitz egin genuen horretaz. Zuk ez zenuen joan nahi Zahar Egoitz batera. Horregatik egon zinen etxean bukaera arte. Eta gustura zaindu zintudan.

Baina ni orain zaharragoa naiz, gehiago nekatzen naiz eta... ezin nuen ama etxean eduki. Ulertzen?

Ez dakizu zer txukun dagoen dena! Eta zaintzaileak oso atseginak dira! Gustatuko litzaizuke, seguru.

Janaria ere goxo-goxoa, etxeakoaren parekoa. Ezin hobeto zainduta dago ama.

Baina bai, igual pixka bat triste. Ni ikusten nauencan, orduan egiten du irribarre. Ez dut ama triste ikusi nahi, baina...

Barkatu, aita.

ZIMELTZEN

Horixe ez dela samurra! Zera! Gorputzak aspaldi utzi zioan lehengoa izateari... Beitu, egia esan, pixkanaka izaten duk. Entenditzen didak, ezta?

Ez haiz jaikitzen goiz batean derrepentean piura honekin! Ez, burusoiltzen hasten haiz..., lehen aise jasotzen huen karga gehiago kostatzen zaik. Hezurrak, giharreak, hasten zaizkik gogorazten ez hagoela hemen betiko, baina tira! Ni ez nagok kekatzeko halere. Tiriki-tarraka moldatzen nauk.

Okerrena, badakik? Lagunen eskelak periodikuan ikustea. Dios! Gogorra duk horixe, horratio! Burua dezente daukak, eta uste duk oraindik urte mordoska oparituko dizkiala goikoak. Baina ez fidatu! Hemen beste horren bisita ere abisatu gabe etortzen duk. Eta hobeto, e? Nik ez diat gaixoaldi luzerik nahi. Baina, bai, datorrena hartu beharra zagok, zer erremedio! Eta kontent, gainera. Ez gaituk hona etorri egun osoan penetan itotzeko. Keba, keba!

Gazteen sasoi? Bai, hartuko nikek, baina haren buruhausterik ez, hori ez! Laurogei urte ditiat eta ederki bizi nauk, soseguan. Poliki, baina taimainan. Nire abentura ez duk bukatu oraindik.

Hortxe, herri sarreran tunel ikaragarria egitera zoazak eta horixe bukatuta ikusteko ilusioa zukaat. Badakizue, gure balekoa behar dik, bestela, malo. Bai, bai, nagoela hemen beste puska baterako!

UF UF

Hasten da irakaslea; "Eta bar, bi, hiru, buelta! Ube! Aurrera! Atzera!" Demonstre! Jarraitu ezinik ibiltzen naiz! Izerdia, bai, blai eginda amaitzen dut. Baina inutilla sentitzen naiz. Eta gero gainera, etxera joan eta...

Horixe! Hozkailua husten dut. Txorizoa dela, txokolatea, ogitarteko punta. Eta jakina, hurrengoan ere joan egin beharko jandakoa erretzera. Hemen dena ondo estudiantuta dago. Gimnasioa zabaltzen dute, baina kafetegia ondoan. Tentazio gehiegi.

Bueno, banoa, aerobik klasea hastera doa!

